

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 268. alea - 2021eko abendua


Nerea Allika
100 urteko
katearen
hirugarren begia



ME MAKINA
ERREMINTA
MUSEOA


Nondik gatozen ezagutu,
nora goazen jakin ahal izateko





**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SO URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Euskararentzat bidea ez da erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen benetako ondasuna,
Urte Berriak dakarkiola geureari osasuna.

**1985etik herritarren zerbitzura.
Gure beharrik izanez gero,
hementxe gaituzue.**

DEBABA UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
Ifar kalea, 12 - 20820 DEBA | 943 19 22 36
udaleuskaltegia.deba@debabe.eus

*Eguberri zorientsu
eta Urte Berri on!*



AURKIBIDEA

6

KOLABORAZIOA

Abenduaren 18a
Migratzaileen
Nazioarteko
Eguna



8

ALBISTEA

Azken asteetako
euriteek kalte
nabarmenak eragin
dituzte gurean ere



10

KRONIKA

Hizkuntza ardatz
hartuta
elkarlanean
"Euskeraz Bagera"



12

ELKARRIZKETA

Nerea Allika
argazkilaria,
100 urteko katearen
hirugarren begia



18

ALBISTEAK

Hamar odol-emailek
esker oneko
omenaldia
jaso dute Deban



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazita-koen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

ierogenea
ekoloduna

"maile ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail: ierogenea@gmail.com

k
kutxabank

ME ENDAÑETA
muebles altzariak


Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria 3000m²

Itziarko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

“Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako BIDEAN”



SARE

Azken urte honetan aurrera urratsak eman diren arren, ezin ditugu ondokoak ahaztu:

➢ Gaur egun 104 preso daude oraindik Euskal Herritik urrun eta, horrela, haien familien eskubi-deak urratzen dituzte.

➢ % 94k bigarren graduan jarraitzen dute eta 10 baino ez dira hirugarren graduan dauden presoak, egoera horretan 70 preso egon beharko liratekeen arren (horietatik 52 baldintzapeko askatasunean). Preso horien % 90ek espetxe-baimenak izateko aukera izan beharko luke, horretarako zigorraren dagokion zatia beteta dutelako.

➢ Espetxeetako Juntatik gradu progresioren bat edo espetxe-baimenen bat lortzen dutenean ANK bere jarrera ideologizatua medio, errekurritu, blokeatu eta geldiarazi egiten ditu erabaki horiek.

➢ Atzeraeraginezko kasuak ere gertatzen hasi dira, hirugarren gradutik berriro bigarrenera itzultzera behartzea, kasu.

Horregatik, “Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako BIDEAN” lelopean, milaka pertsonaren aldarriaz beteko ditu Sarek Bilboko kaleak urtarrilean eta pasa den maiatzaren 8an Andutzeroa igo ginenok ere bertan izango gara, honakoengatik:

• Bizikidetzaz ezinezkoa delako euskal presoek aplikatzen zaien salbuespen-legeriak eragindako eskubide urraketa desagertzen ez bada.

• Etxerako bidea egiteko funtsezkoa delako bizikidetzaren eta bakearen bidean aurrera egitea.

• Sufrimendua desagertzea nahi dugulako.

• Konfrontazio-aroa atzean utzi nahi dugulako.

• Aurrera egiteko gogoia dugulako.

• Preso, iheslari eta deportatuengoa bidegabeari irten-bidea ematea beharrezkoa delako.

Horregatik guztiarengatik, GU, urtarrilaren 8an, 17:00etan, La Casillatik abiatuko den manifestaziora joango gara. Eta ZU? Jarrai dezagun bidean. Orain da ueña.

(Autobuserako eman izena Arkatzen edo Maxin).

Debako Sare



BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE.BOHÈM@GMAIL.COM

f i

ARENA BAR

Janire & Maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com

Zumardi
pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f i

ORAIN
ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAH

Debako Musika Bandak Gaizka Ayastuyren ibilbidea omendu du Santa Zezilian

Joan den azaroaren 27an, larunbata, Santa Zezilia ospatzeko kontzertua eskaini zuen Debako Musika Bandak zumardiko karpan. 200 ikusle batu ziren musikarien zaindariaren omenez egiten den urteroko hitzordura, eta Gure Kai dantza taldeak ere parte hartu zuen euskal doinuez osatutako obra berezi bat dantzatzuz. Egungo segurtasun-neurriak errespetatuz egin zen emanaldia.



Arg.: Inma Alberdi

Hala ere, "sentsazio gazi-gozaok" eduki dituztela aitortu dute bandako kideek, 37 urtean taldeko partaide izan den Gaizka Ayastuy omendu baitzuten haren azken kontzertuan. "Urte hauetan guztietan, bandako tronboilari izateaz gain, bandarekiko eduki duen konpromiso, dedikazio eta lana eskertu nahi izan genion -azaldu diote *Berriketan*-i-. Era berean, aurrerantzean bere hutsunea nabaritutako dugula ere adierazi nahi diogu".



Erakusketa eta musika emanaldi xumea Miquel Saumell Osta gogoan

Miquel Saumell Ostaren artelane-kin atondutako erakusketa ikusgai izan zen azaroko azken asteburuan Debako Kultur Elkartearen. Bertan, artista katalanak sortutako ilustrazioak, eskulanak eta askotariko sormen-lanak ikusteko aukera izan zuten bisitariek. Saumellek musika arloan egindako ibilbidea gogora ekartzen zuten lanak ere baziren tartean.

Hilaren 28an, eguerdian, bere taldekide izandako Jokin Lasa eta Ibon Urkiaren musika-emanaldia ere izan zen Kultur Elkartearen bertan. Saumellen

senideek hitz eta dantzaren bitartez beren omenaldi xumea eskaini zioten artistari, hura zendu zela urtebete bete den honetan.



MIRIAN ARRIZABALAGA

Lau klik komunean

Duela urtebete Greziako kanpamentuetako errefuxiatuentzat neguko arropa bilketan geundela, neska bat atetik sartu eta "arropa zaharra non lagatzen da?" galdetu zuen; bertan geundenok aho batez erantzun genion, baina bat-batean berez arropa zaharra inork ez zuela eskatu etorri zitzaidan burura. "Elkarbanatzea ez da soberan daukaguna ematea, daukaguna banatzea baizik", entzun nion norbaiti. Azokan eskuak ez hozteko erosi berri nituen eskularruak nork ote beharrago? Epea bukatuta, buru estutze erdia. 1. klik.

Interneten gizon zuri batzuek diskriminazio positiboaren biktima gisa agertzen zuten haien burua, emakume beltz batek lortu zuelako beraiek hautagai ziren lanpostua. Gizona eta zuria izateagatik (agian ohartu gabe) lanpostuaren jabe ikusten zutelako beraien burua. 2. klik.

Lagun batek gizarte eredu desberdin baten jardunaldi batera joateko aukera izan zuen eta oso interesgarria iruditu zitzaion. Hizlariak, boterean dagoen talde batekoa izanda, boterea elkarbanatzeko prest zegoela esaten zuen gizarte ezberdin bat eraikitzeko. Arropa zaharrekin bezala, botereak ere soberak. 3. klik.

Fokupean jaialdiko *Maringuruan* parte hartu nuen. Ikusi nuen arte eszenikoan munduan ere, proiektuen gobernantzan, ospean, ageriko eta ezkutuko lanetan... zenbateraino eragiten duen emakume eta gizon rolek nolakoak izan behar duten itsatsita eramateak, sarritan ohartu gabe. 4. klik.

Izan zerbait materiala edo parte hartu edo erabakitze espazio bat, antzeko osagaiak modu ezberdinean antolatuta dituen nahaste bat dugu igarri gabe bakoitzak barruan, non norberaren eta besteen adin, antzintasun, gertutasun, genero, klase sozial, arraza... batzen diren jarrerak desberdinduz. Igarri eta eragin dezagun.

HERRI ANITZA; ELKAR EZAGUTUZ

Abenduaren 18a Migratzaileen Nazioarteko Eguna

Migratzaile adina migrazio-esperientzia dago munduan eta gure herrian ere baditugu hamaika arrazoiengatik bere lurraldea utzi duten hainbat. Abenduaren 18an Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta, bizilagun ditugun herritarren bizipenak ezagutu nahi izan ditugu. Deba-Itziar Anitza taldearen bitartez lortu dugu ondoko elkarrizketa hau.



IMRAN MUKTHAR

Jaioterria: Shergar (Pakistan). Lanbidea: okina.

“Arroan nuen anaiari kasu egin nion eta ez naiz damu hona etorri izanaz”

Noiz iritsi zinen Euskal Herrira?

2009ko urrian iritsi nintzen Euskal Herrira. Anaia nuen Arroan, aurretik etorria eta bertan oso gustura bizi zena. Bera izan zen hona etortzera animatu ninduen. Kasu egin nion eta ez naiz damu.

Zein zen zure lanbidea Pakistanen?

Familia kirolaria dut. Ni, profesional gisa, bederatzirte urtez egon nintzen “borroka pakistandarra”ren selekzioan. Nire

anaia, berriz, Arroan bizi dena, aulki mugikorreko arraunketan jardun zen urte askoan zehar eta bederatzirte urtez Pakistango txapelduna izan zen. Baina, jakina, kirolari profesionalen bizitza mugatua da eta bukatzen denerako zer edo zer pentsatu beharra dago eta hemen gaude.

Asko kostatu al zitzaizun hemengo bizimodura egokitzea? Hizkuntzara, ohituretara...

Ez nengoen bakarrik, anaia nuen hemen eta hilabete batzuetan berarekin bizi izan nintzen. Hizkuntzekin nituen arazoak eta urtebetez Elgoibarrera joan nintzen gaztelania ikastera. Gimnasia egitera, berriz, Debako kiroldegira etortzen nintzen, eta, hala, hemengo lagun pakistandarrek hona etortzera gonbidatu ninduten. Nire jaioterriaren antza badu Debak: biztanle kopurua, lasaitasuna... gustuko nuen. Eta Deban bizitzen nengoela, Galtxa okindegian aurkitu nuen lana, leku eta familia ezin hobean. Izan ere, Olatzek eta bere familiak izugarri lagundu ninduten paperekin. Lanak segurtasuna eta babes eman zizkidan, eta geroztik bertan dihardut, okin.

Bestalde, nik neuk orokorrean jarrera ona, abegikorra jaso dut herriko jendearengandik. Eskerrak eman nahi dizkiet eman didaten laguntza eta pozagatik. Debar sentiarazi naute.

Orain emaztea eta seme biak iritsi dira Debara, ezta?

Bai, lehen haien falta sumatzen nuen gehien. Orain pozik gaude denok. Semeak gustura dabilta eskolan, euskaraz hitz egiten dute han; oraindik ez dakite gaztelaniaz. Etxean, berriz, urduz (Pakistango hizkuntza) hitz egiten dugu.

Itzultzeko asmorik bai egunen batean?

Jaioterria ez da sekula ahazten. Hemen oso pozik nagoen arren, familiako kide eta lagun asko han ditut eta, noski, oportetan bisitan joango gara. Baina bizitzera ez, dagoeneko debarizat dut nire burua eta nire familia ere hona moldatuko da, debar izango dira.

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IZARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Biharko Euskal Herria: gaurkoa baino anitzagoa

Nazio Batuen Erakundeak 2020an abenduaren 18a Migratzaileen Nazioarteko Eguna izendatu zuen, eta ekainaren 20a Errefuxiatuaren Eguna. Data horiek ezarrita, munduan egunetik egunera gehituz doazen migratzaile eta errefuxiatuen egoera larria agerian jarri nahi izan dute, eta nabarmen utzi premiazkoa dela guztion giza eskubideak babestea. Baina hori praktikan jartzea ez da erraza, atzeritarrei buruzko legeak etorkinen gizarteratzea eragozten baitu. Horregatik, ehunka erakunde eta pertsonak sinatu dute dagoeneko legea indargabetzeko.

Irauteko, gatazketatik ihes egiteko, edo klima aldaketagatik, gizakiok beti mugitu eta nahastu izan gara elkarrekin. Duela gutxi, albiste batek zioen euskal jatorriko pertsona gehiago bizi dela Euskal Herritik kanpo Euskal Herrian bertan baino, Ameriketara batez ere. Migratzaile eta errefuxiatuak izan ginen, eta izaten jarraitzen dugu. Migrazioa ez da gertaera iragankorra, egiturazko errealitatea baizik. Gizarte bateko kide garela sentitzeko beharrezko izaten dugu maite ditugun pertsonekin duintasunez bizi ahal izatea, lan egitea, gure komunitateen ongizate eta garapenean laguntzea, eragiten diguten erabakiak hartu ahal izatea, eta autonomia zein errespetua izatea.

Eusko Jaurlaritzak 2018. urtean "Migrazioarako Euskal Itun Soziala, Elkarbizitzaren Aldeko Konpromisoa" izenpetu zuen. Gerora, beste hainbat erakunde atxiki zitzaizkion itun horri. Itunaren konpromisoa giza eskubideak bermatuko dituen euskal gizarte anitzaren alde lan egitea da, herritartasuna eta heziketa inklusiboa sustatzea; besteak

beste, lehenasuna ematea emakume etorkinekin lan egiteari. Helburu horiek lortzeko funtsezkoa da tokian tokiko esparruetan eta egunerokoan lan egitea, ahaztu gabe atzeritarrei buruzko legea oztopo dela: harri bat bidean.

"Migratzaile eta errefuxiatuak izan ginen, eta izaten jarraitzen dugu. Migrazioa ez da gertaera iragankorra, egiturazko errealitatea baizik"

Immigrazioa fenomeno globala den arren, gizarteratzea, gizarte-kohesioa eta bizikidetzaren hurbileko espazioan kudeatzen dira neurri handi batean, udalerrietan. Hori dela eta, berebiziko garrantzia du herritarrengandik hurbilen dauden erakundeek laguntzak: harrera eremuan, bidelagun izaten, zerbitzuak eskaintzen... Udalerrietan zehazten dira herritarren

arteko eguneroko harremanak eta elkarbizitza egokia ahalbidetzen duten ekintzekin gauzatzen da gizarteratzea.

Tokiko erakundeek kirola, kultura, gastronomia, musika eta beste jarduerak eremu batzuen bidez gertutasuna eskaintzen diete etorkinei; gainera, bazterkeriaren edo arrazakeriaren aurkako borroka bultzatzen dute. Gizarteratzea gertatzeko funtsezkoa da jatorri desberdineko pertsonen elkarrekin hartzea parte zenbait ekintzatan. Gizarteratzea prozesu luzea da, bi norabideetan lan jarraitua egitea eskatzen duena, baita etengabe doitzehaleginetan jardutea ere. Ezinbestekoa da Deban, Itziarren eta udalerririk guztietan gure erakundeek, talde antolatuek edo pertsonen aniztasuna sumatzea.

Gizarteratze honetan euskara gai guztiz garrantzitsua da; gizarte-kohesioa indartzen du, aukera sozioekonomiko berriak ematen ditu, eta, gainera, euskal gizartearen parte izateko sentimendua dakar. Deban, 2021eko azaroan, 42 jatorri desberdinetako 331 debar berri zeuden errolatuta; guztira 31 ama-hizkuntza dituzte.

Jose Luis Albizu



Jatorri ezberdineko bizilagun berriekin helduen eskolan (ezkerrean) eta Luzarora egindako bisitan.

DEBA HORTZ KLINIKA



Hondartza kalea, 20 behea - 20820 - Deba
Tel. 943 19 28 19 | info@debaklinika.com

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (ikusezina)
Haurren odontologia

***Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.**

Deba ibaiak gainezka egin eta hainbat eragozpen sortu ditu

Azken asteetako euriteek kalte nabarmenak eragin dituzte Euskal Herriko hainbat gunetan, baita geure inguruan ere. Trafiko arazoak, lur-jausiak, uholdeak... Arazo larrienak abenduaren 11n izan ziren, Deba ibaiak hainbat puntutan gainezka egin zuenean.


Ezusteko horrek hainbat kalte eta eragozpen eragin zituen egunean zehar, esate baterako, Elgoibarrerako noranzkoan errepidea itxita egon zen denbora luzez, garraio publikoak etenaldiak izan zituen, Mendaro ere isolatuta egon zen -ospitalerako joan-etorriak ere ezinezko bihurtuz-...

Debako Udalak azaldu bezala, geurean kalterik handienak ibaiaren inguruko baratzeetan eta Errota Zar futbol zelaian izan

ziren, eta baserri bideren batzuetan ere arazoak izan ziren luizien ondorioz. Dena den, oraindik ere goizegi da, udal ordezkarien arabera, kalte guztien inguruko balorazio orokorra egin ahal izateko.

Joseba Gorosabel Amaiak Bat elkarteko diruzainak adierazitakoaren arabera, "futbol-zelaiaren zati batzuk oso kaltetuta daudenez, zelai erdia erabiliz jokatzeko partidak soilik jokatuta dira Errota Zarren eta besteak inguruko herrietan. Entrenamenduak, berriz, ahal bezala, Deban egingo ditugu. Abenduaren 13an teknikoak pasa ziren eta zelaia pare bat astean egokitzekotan gelditu ziren. Ea ba posible den!"

Kalteak kalte, irudi ikusgarriak laga ditu honek guztiak geurean; Ander Salegiren irudi-bilduma da horren erakusle.



Brontzea Amagoia Arrietarentzat Bocciako Europako txapelketan

Amagoia Arrieta Europako Bocciako txapelketan lehiatu zen azaroaren 22tik 30era, Sevillako San Pabloko Kirolen Jauregian, eta brontzezko domina eskuratu zuen BC1 kategorian. Garun paralisia eta hartutako kalte zerebrala duten pertsonen kirolen Espainiako Federazioak antolatu zuen txapelketa.

Europa mailako lehenengo domina izan da Arrietarentzat. Horretarako A

taldearen buru ezarri zen Anne Walter alemaniarrari (8-3) eta Orit Klner israel-darrari (4-1) irabazita. Final laurdenetan Katerina Curinova txekiarrari (4-2) gailendu zitzaion. Semifinaletan, aldiz, atzera geratu zen Olga Dolgova errusiarraren (4-5) aurka. Azkenik, kantzara itzuli eta brontzezko domina eskuratu zuen Dora Basic kroaziarraren (4-2) aurrean.



MAITANE ETXANIZ

Familia

Familia ugariak. Familia txikiak. Familia nuklear tradizionala. Guraso bakarrek familiak (bananduak, alargunak, borondatez hala erabaki dutenak...). Gurasoen banaketaren ostean sortutako familia berriak (familia berreraikiak). Ezkondutako gurasoen familiak. Izatezko bikote ezkongabeak. Seme-alabarik gabeko familiak. Pertsona bakarrek guneak. Adopzio familiak. Harrera familiak. Familia homoparentalak (sexu bereko bikoteek sortuak). Ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak (kasu batzuetan bi gurasoekin ala batekin lotura genetikorik ez dutenak). Subrogazioaren bidez sortutako familiak. Familia hedatua. Tribua...

Azken urteetan instituzio batek aldaketak izan baditu, hori FAMILIA izan da. Seguru goian aipatutako familia eredu bakoitzean norbait ezagutzen duzuela; eta aniztasun horretan jaiotako umeak ez direla elkarren artean hain ezberdinak. Gogoan ditut 90eko hamarkadan gai honen inguruan sortzen ziren eztabaidak: haurren hobe beharrez familia tradizionalari eutsi behar zitzaiola argudiatzen zen eta egitura tradizionaletik kanpo zeudenak familia "desegituratu" modura ezagutzen ziren.

Egun badakigu familia tradizional desegituratu ugari dagoela (eta egon dela) gure artean, eta, beraz, familiako kideen ongizatea ez dagoela bere egituraren baitan. Zeren baitan dago orduan? Nire iritziz elkarri diogun maitasunaren eta zaintzaren baitan. Horren harira, familia bihurtu den lagun batek esan zidan esaldia partekatuko dizuet: "Odolak senitartekoak soilik sortzen ditu, maitasunak familia".

Elene Ramirezen taldea laugarren postuan Espainiako gimnasia erritmikoko lehiari

Azaroaren 27an Valladoliden jokatu zen Espainiako gimnasia erritmikoko oinarritzko taldeen txapelketa eta, 125 parte-hartzailearen artean, Eibarko Ipurua taldeko kide Elene Ramirez laugarren sailkatu zen bere taldearekin. Azaroaren 20an, berriz, Euskal GYM txapelketa izan zen Bilbon (Euskal Herriko txapelketa nagusia) eta bertan ere nabarmendu egin zen taldea, brontzezko dominarekin, 53 parte-hartzailearen artean. Elene Ramirez zortzi urterekin hasi zen gimnasia erritmikoan, eta gaur egun hamabost urte ditu.



Jose Luis Aperribaik hirugarren postua lortu du ur azpiko argazkiekin Gipuzkoako Ligan

Urpeko Irudiaren Eguna izan zen azaroaren 6a, Gipuzkoako eta Euskadiko Urpeko Jardueren Federazioko Irudi sailak antolatuta. Iazko eta aurtengo hainbat argazki txapelketako sariak banatzeko baliatu zuten eguna eta Urbizi taldea (Jose Luis Aperribai kide duena) ez zen esku hutsik itzuli.

Euskadiko Urpeko Jardueren Federazioak Reale Arena estadioaren behealdean duen egoitzan egin zituzten sari-banaketak, aurtengoa eta iazkoa, pandemiagatik ezin izan baitzuten iazkoa egin. Bertan txapelketetako ediziodun eta ediziorik gabeko lanak ikusteko aukera izan zen lehenik, eta sariak banatu zituzten gero.

Debako Aperribai argazkilaria dagokionez, Joseba Narbaiza laguntzailearekin hirugarren postua eskuratu zuen 2021eko Gipuzkoako Ligan, kamera konpaktuen saillean.





Hizkuntza ardatz hartuta elkarlanean "EUSKERAZ BAGERA"

Herrian aisialdiaz euskaraz gozatu ahal izateko eta herritarren artean euskal harreman-sare berriak eraiki ahal izateko erronkari helduta antolatu da aurten Euskeraz Bagera egitaraua, Euskaren Nazioarteko Egunaren bueltan. Abenduaren 1ean hasi eta hilaren 12ra bitartean, kultura, kirola eta bestelako zenbait eskaintza antolatu zituzten Zuhatza Euskara Elkartek eta herriko hainbat eragilek elkarlanean. Tamalez, baina, aurreikusitako ekintzetako batzuk bertan behera geratu ziren halaberharrez, bizi dugun osasun-egoeraren edo eguraldi txarraren (eta hark eragindako kalteen) ondorioz.

Jesus Mari Makazaga euskal filologo eta EHUko irakaslearen "Debako hizkera noiz eta nola" hitzaldiarekin ekin zitzaion programazioari, hilaren 1ean; gure euskalkiaren berezitasunen berri jaso zuten Kultur Elkartera hurbildu zirenek. Hurrengo egunean, berriz, hogeitik gora herritar batu ziren euskaraz gai desberdinez solas egiteko Agirre jauregian antolatutako Mintzodromora.

Abenduaren 3an, Zuhatzak eta Mendata institutuak elkarla-

nean antolatutako literatur lehiaketako sari-banaketa ekitaldia izan zen goizean ikastetxean. Iluntze partean, berriz, kalera irten zen Euskeraz Bagera: Kalean Kantuz taldea aritu zen giroa alaituz eta Zuhatzaren material-salmentarako postua ere izan zen plazan; bertan, belar-metaren pisua asmatzeko apustua Itziar Aizpuruak irabazi zuen, trukean Errigorako saski ederra lortuta.

Azken orduko aldaketa baten ondorioz, Gaztelekuko kideek abenduaren 8ra atzeratu zuten hasiera batean hilaren 4rako aurreikusita zegoen Euskaraokea eta, beste behin ere, euskaraz kantuan aritzeko aukera izan zuten gazteek hitzorduan. Bestetik, zinema izan zen protagonista hilaren 5ean eta hogeita bost bat lagun bildu ziren *Ilargi guztiak* filmaren proiektzioan.

Abenduaren 11n kontzertua izan zen Gaztetxean eta programazioa hilaren 12ko ipuin-kontaketa herrikoiak itxi zuen, Kultur Elkarteko plazan. Ohiko ipuin-kontalariei beste herritar batzuk ere batu zitzaizkien oraingoan eta ipuinek, asmakizunek eta zuzeneko musikak jantzi zuten familia-giroan egindako ekimena.

Seven Clovers
Irish pub
943 191 295

SAGARMIÑA
RAIKETAK S.L.
Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

LAMARIANO
Oinetakoak
Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Informatika JLC Elektronika
Tresneria informatika | Osagai elektronikoak
Maxpe kalea, 7 - behe | 20820 DEBA
Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601
informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala
SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behe - DEBA
Tel.: 943 19 22 63
www.atarideba.com

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa
Kolegiatu zk. 20.000.975
maitena
HORTZ KLINIKA
Tel. 943 83 04 24
Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



Arrazoi ezberdinak tarteko, egitarauko lau ekintza bertan behera geratu dira (ziurrenik guztiak egingo dira aurrerago, egoerak ahalbidetzen duenean): KulturEkin programaren baitan antolatutako Xahu taldearen jazz kontzertua, MintzaCapoeira familiar, MintzaSurf saioa eta Errota Zarren Amaiak Baten partidetan jokatu behar zituzten “Euskararen aldeko golak”.

“Inoiz baino anitzago eta zabalagoa”

Hori guztia kontuan hartuta, egitarauaren balorazio “gazi-gozairekin” geratu dira antolatzaileak neurri batean. Nolanahi ere, pozarren daude orokorrean; batetik, beste urte batzuetan baino egitarau anitzagoa prestatu delako aurten Euskararen Nazioarteko Egunaren harira; eta, bestetik, programazioa antolatzeko elkarlanean aritu diren eragileen zerrenda bera ere “inoiz baino zabalagoa” izan baita oraingoan. Neurri batean zein bestean, Debako Udala, Zuhatzta, Kultur Elkarte, Zurrumbilo, Gazte Asanblada, Kalean Kantuz, Amaiak Bat, Debadezine, Debako Kontalariak, Mendata BHI, Gaztelekua, Sensala Euskadi Capoeira, Ikigai zentroa, Ipar Surf&Skate, Yako Surf Eskola eta Katxalote dira, besteak beste, Euskeraz Bagera egitarauari ekarpena egin diotenak.

Literatur lehiaketako sariak banatu dira Mendatan



Mendata institutuak eta Zuhatzta elkarteak antolatutako literatur lehiaketari dagozkion sariak Euskararen Nazioarteko Egunean banatu ziren ikastetxean. DBHko ziklo bakoitzean, bi sari nagusi banatu dira; ebook bat jaso dute opari lehenengo saria irabazi dutenek eta Arkatzen erabiltzeko 60 euroko opari-txartela bigarren saria lortu dutenek. Sariez gain, hainbat lanek aipamen berezia izan dute aurten eta egileek liburu bana jaso dute opari.

Epaile lanetan Maddi Astigarraga, Amets Carrillo, Igor Larrañaga eta Alazne Txurruka aritu dira. Haien erabakiz, lehen zikloan (DBHko 1. eta 2. maila) Inge Etxaniz gailendu da “Niri begira” izenburuko lanarekin, Nagore Arakistainek jaso du bigarren saria “Desberdina ez da txaragoa izan behar” lanarekin, eta azkenik, aipamen berezia Sara Arrizabalagak eskuratu du “Arrain beltz bat itsaso zuriaren erdian” lanari esker. Bigarren zikloan (DBHko 3. eta 4. maila), berriz, Maria de Anta nagusitu da “Ikusezin” izenburuko lanarekin, Ane Iciarrek jaso du bigarren saria “Ausartu” idazlanarekin eta Saioa Egañak eraman du aipamen berezia “Etena” idazlanari esker.

-EUSKERAZ- BAGERA!

EGIN ZAITEZ ZUHATZAKIDE!

www.labor.eus/Zuhatzta_EginBazkide

Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com

SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ

Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgobogados.eus

NEREA ALLIKA argazkilaria

“Eguneratu gabe edo gogorik gabe lanbide honetan aritzea ezinezkoa da”

Allika argazki-dendak eta hiru belaunaldien lan moduek azken 100 urteetako argazkilaritzaren historia laburbiltzen dutela esan liteke; eta herri baten historia izan da argazki argazki josi dutena ere. Aitonak, aitak, eta jardunean dabilen Nerea Allikak, kameran atzeko beren begietatik, lehen eta oraingo herritarren bizitzak edonoren begietara hurbildu dituzte. 51 urte ditu Nereak eta afizio eta ofizio du argazkilaritza. Bien arteko marra oso lausoa dela dio, eta zaila egiten zaio bere burua beste ofizio batean irudikatzea, bere izaera eta argazkilaritza erabat lotuta ikusten dituta. Hura du bizibide eta bizitza.



Arg.: Ander Salegi

Ehun urte egin ditu dagoeneko Deban Allika argazki-dendak, baina abizenak Bermeen du jatorria, ezta?

Hala da, lanak, trenbidearen eraikuntza-lanek zehazki, ekarri zuten Ramon, gure birraitona, Debara Errepublikara garaietan.

Gerra aurreko sasoiaren zuen aitona Hilariok argazkilaritza ikasi zuen Bilbon; gizon jantzia behar zuen izan...

Bai, oso gaztetxo, hamalau urterekin, bidali zuten Bilbora argazkilaritza ikastera eta hiru urte eman zituen han. Ez dakigu ziur bere afizioz edo bere aita Ramonen ideia izan zen.

Eta haren testigua hartu zuen Antonek, zuen aitak, Frankismo betean. Hilarioren antzeko bidea egin al zuen?

Ez, oso bestelakoa. Deban egiten ziren lehen ikasketak eta gazte-gaztetatik aitarekin hasi zen lanean, hasieran dena aitarekin ikasi zuen, gero bere kabuz, jakina. Baina oso sasoi desberdina izan zen Errepublikaren aldean, askoz aukera gutxiago zegoen; atzerapauso hori nabarmena da kasu honetan.

Antonoren atzetik, berriz, zu zeu, Nerea, lehenengo emakumea argazkilarifamilia honetan...

Bai, lanbide honetan emakumezko

argazkilaria asko egon da bai nire sasoiaren bai aitarenean; gizonak beste esango nuke. Egia da familia alorreko argazkilaritzan emakume gehiago jarduten dela, nahiz eta gizonezkoak egon badauden. Argazkilaritza industrialak, kirol-argazkilaritza, bodegoiak... horretan, berriz, gizonezko gehiago dago. Baina erakusketak eta sarituak bi generoetakoak daude. Ez dut inoiz alde horretatik bazterketarik sumatu. Nire kasuan behintzat, nire izaeraz, bakarka baino jendearekin harremanetan lan egitea askoz nahiago dudalako nago familia-argazkilaritzan.

“Hirurok jakin dugu, bakoitzak bere erara, sasoiaren erroka eta aldaketei erantzuteko egokitzen gure lana”

Bartzelonan ikasi zenuen. Zuk ikasitakoak asko urruntzen al ziren dagoeneko aitaren lan moldetik?

Orduan ez. 90eko hamarkadaren hasieran egon nintzen ni han eta garai hartan era digitala iritsi gabe zegoen, ikasketak guztiak analogikoan ziren. Teknika

klasikoa ikasi nuen han, nola egin zuzen txuri-beltzeko argazkiak, nola errebelatu, nola argizatatu... Ez ziren unibertsitateko ikasketak ere, harrezkero badago diplomatura. Gero, eguneroko lanean, ezin duzu hain perfektu egin dena, baina oinarri sendo bat hartu nuen han eta gero, beti bezala, lanean jardunean ikasi nuen, jakina. Egun, berriz, egiten dudana lana aitak egiten zuenaren oso desberdina da.

Bizibide bati 100 urtez eustea ez da broma! Aldi gogorak ere izango ziren bidean...

Garairik zailena, ofizioaren gertatutako aldaketa izugarriengatik, nik bizitakoa dela esango nuke. Krisiak lehenago izan dira, bai, baina gure sasoiaren ere izan dira, eta gure kasuan horri teknologiak ekarritako aldaketa izugarria gehitu behar zaio. Hala ere, hirurok jakin dugu, nire ustez, bakoitzak bere erara, sasoi bakoitzeko erroka eta aldaketei erantzuteko egokitzen gure lana.

Gogoangarriak ere izan dira, seguru. Herriari lotutako istorioak, anekdotak...

Arreta handia ematen didan gauza bat da gure aitak hemen inguruko baserri guztiak ezagutzea. “Familia ugaria” izaten ziren garai hartan baserrietan gehienak eta makinak hartuta oinez joaten

ziren aita eta aitona familia horiei argazkiak ateratzera. Bizitza osoan argazki bakarra ateratzen zen, sasoi hartan ez zegoelako hain eskuragarri. Eta oso gertara berezia izaten zenez, dotore-dotore jantzen ziren denak. Gero, nola ez, hamai-ketakoak eta abar egiten zituzten. Harreman estua sortzen zen haien artean.

Bizitzak zuzenean jasoz herriaren historia biltzen duzue. Herritarrek in harreman duzue horretarako?

Jendea ezkontzen denean, umeak izaten dituen... etortzen da gurera. Nire lanaren % 99 momentu pozgarriak dira, momentu tristeetan argazki gutxi ateratzen da. Horregatik, lan honek oso karga positiboa du. Egiten den harremana lagunartekoa izaten da. Oso deigarria egiten zait, adibidez, norbait hemen dagoenean telefonoz deitzen badiote askotan ez duela esaten "argazki-dendan nago", "Allikan nago" baizik. Horri marka deitzen diote.

Gehienok zurekin eta aitarekin Hondartza kalean ezagutu dugu Allika argazki-denda. Hor egon al da beti?

Ez. Gaur egungo Ostolaza kalean, orduko Calle Carnicería 21ean, pisu batean zeukan aitona estudioa. Familiak, gero, Hondartza kaleko etxea erosi zuen eta aita bertan jaio zen. Kokaguneagatik aukeratu zuten, denda jartzeko aukerarik "komertzialena" zelako. Labaderoa zegoen hemen lehen, eta behealdeko harria mantendu zuten.

Asfogi Gipuzkoako Argazkilari Profesionalen Elkarteko zuzendaritzako kide ere bazara. Zein da argazkilaritzak

bizi duen egoera egun?

Gehien kezkatzen gaituen gaia piratena da. Egun kamera duen edonork dio argazkilari dela, bertatik bizi gabe, eta beltzean kobratzen du, gutxiago, eta horrek gure lana devaluatzen du. Nik jasotako dirutik BEZa ordaindu behar dut, autonomoak, lokalaren gastuak... Ofizioari kalterik handiena egiten diona jendearen begietara dena berdina izatea da, ez da bereizten zein den profesionala eta zein ez. Nik faktura aurkeztu beharra daukat, erantzukizun zibileko aseguru ordaindu... Askok Instagram-en "photographer" jartzen dute, ingelesez gainera, baina ez dira hortik bizi, ez dute zergarik ordaintzen... Oso lehia desleiala da.

"Askok Instagram-en photographer direla jartzen dute, baina ez dute zergarik ordaintzen... Oso lehia desleiala da"

Asko aldatu al da argazkilaritza sektorea azken urteotan?

Hainbeste... egia esan oraintxe ez dakit nire ofizioa nora doan; ez dakit beste batzuk bezala desagertuko den ere, edo nire bidea bilatuko dudan berriz, orain arte bezala. 100. urtera iritsi gara, bai, baina noiz arte iraungo dugun...

Sektorea berritzen ari da oraindik?

Eguneroko aldaketa da hemen daukaguna. Kontua da tren horretara igotzen

zarenean zoragarria bihurtzen dela dena; erraza eta polita. Aldaketaren kontzeptua ondo barneratuta daukagunean asko gozatzen da. Konturatzen naiz, esate baterako, orain eta orain dela sei hilabete gauza bera ez nukeela berdin editatuko.

Nire lanaren estetika, niri gustatzen zaidan "look" hori, ez da aldatzen; egokitu egiten dut bitarteko berrietara. Nire kristal horretatik begiratuta jasotako ikuspuntua zehatz ematen saiatzen naiz.

Elkartean beti gabilza formakuntza jasotzen, eta teknologia berrien aukerez ikasten: Instagram, sareak... Eguneratu gabe edo gogorik gabe lan honetan aritzea ezinezkoa da.

Pandemiak nola eragin dio zuen sektoreari? Itzuli al da lehengora?

Pandemian ezin zen familia arteko ospakizunik egin, ez ezkontzarik, jaunartzerik, urrezko ezteirik... 2021ean batzuk berreskuratu dira eta, bizitzak aurrera jarraitzen duenez, familiek segitzen dute une on horien oroigarri bat nahi izaten. Bestalde, neurriak ondo zainduta, estudioa etortzeko beldurrik ez du izan jendeak, nik hasieran kezka izan arren.

Beste zerbait gehitu nahiko zenuke? Hurrengo leerroak zeureak dira.

% 99n dendan bezero eta herriarekin daukagun harremana familia bezala oso ona da. Herritar eta ondoko herritako askorengandik jasotzen dugun erantzuna oso gertukoa da. Horregatik, beraiengatik guztiengatik ere iraun dugulako, hori eskertu egin nahi genuke. Egunero galdeztzen dit baten batek aitarengatik ere; babes hori benetan eskertzekoa da!



Isidra Muguruza eta Hilario Allika, haien seme-alaba Jose Ramon, Maria Isabel eta Antonekin.



Anton Allika Hondartza kaleko lokalean, 1948ko uztailean.

Urtea amaitu arte izango da abian "Lehen aukera herria" merkataritza-kanpaina

Abenduaren 1ean jarri zuten martxan "Lehen aukera herria" kanpaina. Herri-tarrak herriko merkataritza eta zerbitzu-guneetan kontsumitzera animatzea bilatzen du egitasmoak eta horretarako puntu bidezko programa bat erabiliko da; guztira 1.200 puntu banatuko dira, izena eman duten 17 saltokietan, eta puntuak (eta haiek itsasteko txartelak) erosketak egitean jasoko dituzte herritarrek, pilotzen joan daitezten.

Hamar euro baino gehiagoko erosketarekin, puntu bat emango zaio erosleari (puntu bat hamar euroko), eta erosketarekin bakoitzeko gehienez ere lau puntu lortu ahaliko dira. 16 urtetik 29 urte bitartekoei, aldiz, bi puntu emango zaizkie 10 euroko erosketarekin bakoitzagatik, gazteek herrian ostea bultzatzeko.

Ekimenean parte hartzen duten saltokiek haien produktuekin osatutako loteak egingo dituzte. Puntu kopuru bat beharko da lote horiek eskuratzeko eta, kopuru hori lortzen duenean, herritarrek produktuen lotea jasoko du; hori izango da eroslearentzat onura, "oparia".

Kanpaina abenduaren 31n amaituko da eta 2022ko urtarrilaren 8an bizikleta elektriko bat zozketatuko da parte-hartzaileen artean. Udalak 12.000€ jarriko ditu puntutan.

Indarkeria matxistaren kontrako aldarria



Arg.: Ander Salegi

Indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratze isila egin zen azaroaren 25ean udaletxe azpiko arkupeetan. Ez zen izan, ordea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren bueltan aurten antolatutako ekintza bakarra. Aurrez, esate baterako, antzerki-emanaldi bat izan zen Itziarren, baita dokumental baten proiektzioa ere Kultur Elkartearen.

Hilaren 26an, bestetik, Beldur Barik lehiaketaren sari-banaketa ere izan zen Agirre jauregian, urtero legez. Lehiaketaren lehenengo kategorian, "Denbora pasa, aboluziorik ez" izeneko bideoak lortu zuen saria; bigarren kategorian, berriz, "Beldur barik bizi nahia" izenburuko lana saritu zuten. Bost taldek parte hartu dute aurtengo lehiaketan.

Era berean, Debako osoko bilkuran A25aren inguruko adierazpen instituzio-



nala adostu zuten udalbatzako kideek (testua www.deba.eus-en irakur daiteke).

ITURLAN, S.L. Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

EUSKERAZ BAGERA!

ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



MARIA JESUS ARANBURU

66 urte

Aspalditik naiz zuhatzakide, euskara sustatu eta garatzearekin bat natorrelako. *Berriketan*-ek Itziar eta Debari buruzko berri interesgarriak, elkarrizketa aberatsak... ditu. Baina bereziki azpimarratu nahi nuke adin batetik aurrerako pertsonoi (frankismoarengatik euskaraz eskolagabeoi) euskaraz irakurtzeko ematen digun aukera, "torpe" sentitu gabe. Horrez gain, Debako eskolekin elkarlanean egiten den *Berriketan Gaztea* eta idazlan-lehiaketa nabarmenduko nituzke, gazteak motibatu eta ingurukoak (aitona-amonak, gurasoak, lagunak...) poliki-poliki euskaraz irakurtzera ohitu dituelako.

MARKEL PORTU

33 urte

Herritik jaso eta herriari ematen zaiolako. Debarra ez naizen arren, denbora luzez Debako Gaztelekuan herriko gazteekin lan egiteko zortea izan dut, eta horrek herriak gordetzen dituen zenbait altxor ezagutzeko aukera eman dit. Horieta bat Zuhatza Euskara Elkarte izan da. Eskerrik asko, beste behin, euskarak herrian merezi duen presentzia izan dezan egiten duzuen lan guztiarengatik. Aupa zuek!



ALAZNE OSTOLAZA

34 urte

Deban euskara bizirik egotea nahi dudalako. Horretarako, Zuhatza bezalako elkarte bat herrian egotea beharrezkoa da, euskara eta euskal kultura sustatzeko lan handia egiten duelako: herritarrek aktiboki parte hartzen duten euskarazko *Berriketan*, Kolore Anitzen ekitaldiak, euskara praktikatu nahi dutenentzako Mintzalaguna, hainbeste gustatzen zaigun Euskal Jaia... Eta gainera, Euskal Herri mailako hainbat ekimenekin (Korrika, Errigora...) lotura egiten laguntzen digulako! Bide honek aurrera jarrai dezan denon laguntza behar du Zuhatzak!

XABIER LAKA

59 urte

Zenbat denbora igaro den lehenengoz *Berriketan*-en nire testu bat argitaratu zela... Harrezkero estualdi dezente izan dituzte Zuhatzako langile finek. Pentsatzen jarrita etorri zait euskararen munduan murgildurik bizi garenontzat erronka berriak gehitu zaizkigula, zaharrak konpondu gabe egon arren: gizartearen eraldaketa-abiadurara moldatu behar; gure hizkuntza tresna baliagarritzat plazaratu etorkin eta erdal hiztunak erakartzeko. Denontzat dago zeregina, bai gure eguneroko harremanetan, bai Zuhatza Euskara Elkartean, orain arteko lan eta konpromisoak jarraipen bat izan dezan.





GOIMEK: lanean euskara biziberrituz gizartea eraldatzen ari den kooperatiba

Orain dela 21 urtetik hona ari da Danobatgroup bere egunerokotasuna euskaraz izateko lanean eta, aurten, 2021-2024 plan estrategikoa diseinatu du. Goimek Itziazarren kokatutako enpresak ere, Danobatgroup-en parte den aldetik, egunerokoan euskara normaltasunez erabili ahal izateko taldearen plan estrategikoa ezarrita du, betiere hizkuntza-politika eta erritimo propioari jarraiki.

Goimek-en balio kooperatiboen artean erantzukizun soziala eta bertako kultura bultzatzea daude. Lan munduan euskara biziberritzea eraldaketa sozialaren parte ikusten dute eta hor kokatzen dute euskara plana.

Lau urtetik behin euskararen plan estrategikoak diseinatzeko dituzte eta Goimek-eko Organoek onartzen. Proposamenak diseinatu eta eguneroko lan teknikoak egiteaz arduratzen dena, berriz, Euskara Batzordea da. Danobatgroup Taldeko Euskara Batzordeaz gain, taldeko kooperatiba bakoitzak bere Euskara Batzordea dauka euskara planeko lan teknikoak egiteko.

Euskara Batzordean Goimek-eko langune eta erabakiguneak daude ordezka-

“Goimek-era iritsi berriek martxan den hizkuntza-dinamika ikusten dute, eta arazorik gabe barneratzen”

tuta, eta Emuneko euskara aholkulari bat ere badago bertan. Urte hasieran diseinatzeko dute urteko kudeaketa plana, eta urtean zehar hileroko biltzen dira gaien jarraipena egin eta helburuak gauzatzeko.

Horrez gain, Emunen aholkularitza tekniko ezinbesteko dute euskaraz lan egiteko helburua betetzeko bidean. Euskararen normalizazio-prozesua gartzeko, dituzten praktika onak sendotzeko eta atzerapausorik ez gertatzeko aholkularitza ematen die Emunek Danobatgroup-eko kooperatiba guztiei.

Jauzi handia gazte baten eskutik

Pello Beristain Euskara Batzordeko kidearen esanetan, “2016an karrera amaierako proiektua egitera Mondragon Unibertsitatetik etorritako gazte batek bultzada handia eman zigun lantegian euskara sustatzeko hasitako bidean”. Ordura arte, makinetara heltzen zen dokumentazioa sortzailearen esku zegoen eta bakoitzak nahi zuen hizkuntza erabiltzen zuen. Baina une horretan ohartu ziren produkzio eta kalitate maila hobetzeko lan moduak eta erremintak homo-

geneizatu behar zituztela eta horretarako aplikazio bat elikatu beharra zegoela. Aplikazio hori dena euskaraz elikatu zuen gazteak eta, horrela, dena euskaraz sartu zen sisteman. Erreminta-taulak euskaraz ateratzen ziren automatikoki sistematik eta ikusi zuten tailerrean langileek naturaltasunez hartzen zutela; politikopoliki makinetara eramaten zituzten beste lan-agiriak ere euskaraz sortzen hasi ziren.

Eta egunerokoan zer?

Eguneroko martxarako garrantzitsua da eurentzat piezak, erremintak... denek berdin izendatzea, eta izendapena egokia eta ofiziala izatea; izan ere, euskara teknikoak lantzen joatea dute erronketako bat.

Hiztegi teknikoek ere lagundu diete, bereziki Danobatgroup-ek sortutakoak (hiztegi teknikoak edozeinentzat dago eskura www.danobatgroup.com webgunean). Goimek-en asko erabiltzen dute hiztegi hori, baita osatu ere bilatutako hitzen bat topatzen ez dutenean. Emunen aholkularitza arlo horretan ere ezinbestekotzat dute.

Ofizialki aurten onartu dute kooperatiban hizkuntza-irizpideak kontuan hartzen dituen kontratazio-politika. Gero, langileek beren euskara maila hobetu nahi izanez gero, Goimek-ek hainbat baliabide eskaintzen dizkie.

Beristainek azpimarratu digunez, “Oro har, lantegiko eguneroko funtzionamenduari dagokionez, Goimek-era iritsi berriek bertan martxan daukaten hizkuntza-dinamika ikusten dute, eta arazorik gabe barneratzen”.



PELLO BERISTAIN

Goimek-eko programatzaile eta Euskara Batzordeko kidea

“Langileak egunero makinan, esku artean erabiliko dituen dokumentuak euskaraz ditu”

Esfortzua eskatzen al du lanean euskaraz aritzeak? Eta ohi-turak nola aldatzen dira?

Euskaraz bizi garenontzat ez da inolako esfortzu berezirik, baina arrazoi desberdinengatik euskara gutxiago erabiltzen dute-mentzat izan daiteke ohitura aldaketa bat eta esfortzu berezia egin beharra izatea: guztiok eskertzen diegun ahalegina. Ohiturak aldatzeko nik ez daukat formula magikorik, baina konstanteak izatea garrantzitsua dela uste dut.

Langileak kontzientziatuta edo sensibilizatuta al daude? Nola bizi dute hau guztia?

Goimek-eko langile gehienok inguruetako herrietakoak gara, herri euskaldunetakoak. Euskararekiko sensibilizazio maila altua da. Lanean euskaraz aritzea naturaltasunez hartzen dugu, ohitura sortu dugu eta kolektiboaren aldetik euskara eskakizuna ere badago.

Mekanizatzaileak makina euskaraz jasotzen al du? Hala bada, nola izaten da euskaratze-prozesua?

Makinetara doazen lan egiteko agiriak hasieratik euskaraz sor-tzen ditugu, beraz, ez dago euskaratze prozesurik. Makinetako langileei informazioa euskaraz iristen zaienez, intzidentziak eta oharrak transmititu behar dituztenean ere hala egiten dute; kate bat da. Horregatik da garrantzitsua lan batzuk, epe luzean geldituko direnak behintzat, euskaraz hastea, gero hala segitzeko.

Baliabide horiekin guztiekin, zer aukera ditu Goimek-eko langile batek lanean euskaraz jarduteko?

Lehen esan dudan bezala ohitura sortua dugu dagoeneko. Goimek-en euskara hutsean lan egiteko aukera asko dauzkagu. Langileak egunero bere makinan, esku artean erabiliko dituen agiriak euskaraz izateak, esan bezala, ondorengo katea euskaraz izatea dakar; eronka kate hori luzatzen joatea da.



ENERITZ MUGURUZA

Goimek-eko finantza teknikari eta euskara koordinatzailea

“Zorrotz jarraitzen dugu hizkuntza-eskakizunen irizpidea, euskararen arnagune izan daitekeen gunean gaudelako”

Zein da Goimek-eko langileen euskararen ulermen mailaren datu orokorra egun? Eta ahozko erabilera?

% 97koa da euskararen ulermen maila. Hizkuntza-eskakizunak ezarrita ditugu, eta lanpostu bakoitzerako euskara-profila zehaztuta. Hizkuntza-eskakizunak onartu aurretik ere profil euskalduneko langileak kontratatu izan dira, baina orain zorrotz jarraitzen dugu hizkuntza-eskakizunen irizpidea, euskararen arnagune izan daitekeen gunean batean euskararik ez dakien batek egoera irauli dezakeelako, eta urteetako lana bertan behera utzi. Ahozkoari buruz, neurketen emaitzak ez ditugu oraindik. Orain bi urteko datuetan elkarrizketen % 58 euskaraz ziren.

Batzar nagusietako ahozko erabilera zenbatekoa da? Zein izaten da funtzionamendua?

Batzar Nagusia euskaraz egiten da. Hori da irizpidea eta erro-tutako lorpena da. Bestalde, identifikatuta ditugu ulermena ziur-tatuta duten bilerak, eta horiek euskaraz garatzea da helburua. Bilera horietako erabilera maila lortzeko gaitasunean trebatzen dira langileak.

Bikain ziurtagiria dute Danobatgroup-eko ia enpresa guztiek.

Bai. Goimek-en kasuan, 2017an lortu zuen zilarrezko Bikain ziurtagiria, eta orain urrezko Bikain lortzea dugu helburu.

Danobatgroup, Soralue, Latz, Goimek eta Idekok zilarrezko Bikain ziurtagiria dute, eta Danobatek urrezkoa.

Euskararen aldeko zein proiektu bultzatzen ditu ekonomiko-koki Danobatgroup-ek?

Egunean Behin lehiaketa. Horrez gain, lehiaketan taldeak antolatzen dira kooperatibetan eta aparteko sariak banatzen.

Euskaraldia ere bai: ariketa ofizialean parte hartu genuen, eta egin izan ditugu gure Euskaraldiko ariketa partikularrak ere. Eta nola ez, Korrika, kilometroa erosten du-eta Danobatgroup-ek.



Mikel Oyarzabalek sinatutako kamiseta zozketatu du Apakinek

Apakin guraso taldeak apirilean bideoekin batera banatutako galdesortak erantzun zituzten gurasoen artean zozketa egin zuen. Telmo Gonzalezen gurasoak izan dira saridunak eta Mikel Oyarzabalek sinatutako kamiseta jaso dute, dedikatoria (eskaintza) eta guzti.

Lanerako orientazio zerbitzua martxan da

Enplegu-eskatzailerei zuzendutako orientazio-zerbitzua jarri du berriz ere abian Lanbidek herrian, Zabaltzen Sartu eta Debako Udalaren laguntzarekin.

Ostiraletan eskaintzen da zerbitzua, Gizarte Zerbitzuen sailean, 10:00etatik 15:00etara. Aldez aurretik hitzordua eskatu beharko dute interesatuek, 618777070 telefono zenbakira deituz edo yolandaur@zabaltzen.sartu.org helbidera mezua idatziz.

Hamar odol-emailek jaso dute esker oneko omenaldia geurean



Gipuzkoako odol-emailek omendu zituzten pasa den azaroaren 28an, ekitaldiak herriz herri eginez, eta hamar lagunek jaso zituzten intsigniak eta esker onak Deban.

Eman duten odolaren arabera omendu dituzte. Aitortza jaso dutenen zerrenda hauxe da: 25 aldiz ematearren, Leire Agirrebeña, Zigor Artamendi, Miren Itziar Egidazu, Oier Iriondo eta

Arkaitz Osa; 50 aldiz ematearren, Juan Jose Alcelay; 60 aldiz ematearren, Kontxu Ostolaza; 75 aldiz ematearren, Jose Maria Balzola eta Dabi Sagarna; eta, azkenik, 80 aldiz odola ematearren Inma Alberdi.

Odol-emailek omentzeko ez ezik, odola ematearen garrantzia nabarmentzeko ere antolatu ohi du ekitaldia Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak.

Bidezko Merkataritza bultzatzeko denda Portu kalean

Iazko etenaldiaren ondoren, gabonetako elkartasun denda zabaldu dute beste behin ere herrian, Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldearen ekimenez. Bertan, hainbat herrialdetako produktuak jarri dira salgai, hala nola elikagaiak, kosmetikoak, bisuteria edota artisaun-produktuak. Denda urtarilaren 5era arte egongo da zabalik, Portu kalean, ondoko ordutegian: astegunetan 17:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara.

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunidadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA Tel.: 943 192 471 Tel./Fax: 943 192 303 urlo@urlosi.net

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podología

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

COVID ziurtagiria indarrean da eta eremu itxi gehienetara zabaldu du azken dekretuak

Abuztuaren 9tik dago Ipar Euskal Herrian indarrean COVID ziurtagiria eta Nafarroan, azaroaren 27tik. Abenduaren 4tik, berriz, EAEn ere eskatzen da koronabirusa pasatu edo txertatu izana erakusten duen agiria.

Gaueko aisialdiko espazioetan eta 50 lagunetik gorako jatetxeetan eskatzen dute: dantzalekuetan, musika ikuskizunak eskaintzen dituzten aretoetan, musika tabernetan eta karaokeetan. Pub eta taberna berezietan ere bai, 22:00etatik aurrera. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia metatua 150 kasukoa baino handiagoa den bitartean eutsiko diote

-937,30ekoa zen abenduaren 13an-, eta establezimenduen jabeen ardura izango da bezeroek dokumentua dutela ziurtatzea (paper edo formatu digitalean).

Iñigo Urkullu lehendakariak, ordea, ziurtagiri horren erabilera beste toki batzuetan ere hedatzeko eskaera egin zion EAEko Auzitegi Nagusiari. Lehen ere, ziurtagiria erabiltzen hasteko baimen eske jo behar izan zuten hara, baina auzitegi horrek ukatuta, Auzitegi Gorenak eman zien azkenean. Oraingoan, COVID ziurtagiria eremu itxi gehienetara zabaltzea baimendu zuen EAEko Auzitegi Nagusiak: ostalaritzako eremuetara, ospitaleetara, zentro soziosanitarioetara, zahar etxeetara,

gimnasioetara, kultur ekitaldietara eta espetxeetara ere zabaldu da COVID ziurtagiriaren erabilera. Puntu batean bota zuen atzera: aire zabaleko kirol ekitaldietan. Betiere azken hamalau egunetako intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 300 kasutik gorakoa bada egongo da indarrean neurri hori.

Bestalde, abenduaren 15etik indarrean dago Hego Euskal Herrian COVID-19aren aurkako txerto pediatrikoa emateko kanpaina. Osasun zentroetan eta prestatutako gunetan ematen dute, txertodromo eta ospitaleetan batik bat. Pfizer markakoa da, unera arte, baimendutako txerto pediatriko bakarra. Espainiara iritsitako lehen sorta (1,3 milioi txerto) 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako izango da. Txertatzen lehenak arriskuan dauden umeak eta nagusiak (10-11 urte bitartekoak) izango dira.


Etterik gabeko pertsonentzako neguko aterpetxea zabaldu dute Eibarren

Abenduaren hasieran ipini zuten martxan etterik gabekoentzat aterpetxea Eibarko Karmeldarren eraikinean. Debabarrena eskualde osorako zerbitzua eskainiko du neguan, apirilera bitartean egongo baita zabalik.

Hamalau lagunentzat tokia dauka, eta ohea eta norbera garbitzeko aukera eskainiko ditu eguraldi txarreko egunetan. Lokalak egokituta daude dagoeneko eta

hezitzaileak ere prest daude etterik gabeko pertsonen jarraipena eta akonpainamendua egiteko. Egitasmoaren sustatzaileek zehaztu dute ez dela epe luzerako aterpe bat, baizik eta aldi baterakoa, eta etterik gabekoek egun jakinetan erabili ahal izango dute.

Debabarreneko Gizarte Zerbitzuetako Mapan jasotako azpiegitura- eta baliabide-planaren baitan kokatu behar da egitasmoa.



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA, ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK, BISITA GIDATUAK... BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA. Parte hartu nahi duzu?



Nondik gatozen ezagutu, nora goazen jakin ahal izateko

Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio tailer batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.

Ez galdu esperientzia ikusgarri hau bizitzeko aukera!

Bisitak



Bisita librea, gidatua, audiogidarekin,
taldeentzat, ikastetxeentzat egokitua,
enpresentzat, familientzat ...



Antzinako ogibideak



Galtzear dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte diziplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Bizilabe tailerrak, erronka errealekin.



Espazioen alokairua

Museoko espazioa erabilera anitzetarako alokatzeko aukera dago: bilerak, ekitaldiak, aurkezpenak, ikusentzunezkoak, telebista saioak etab. Leku paregabekoa, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56

Makina Erreminta Museoa
Elgoibar, Gipuzkoa
www.museoa.eus
museoa@museoa.eus



Erredakzioaren oharra:

***Ekimenak COVID-19ak eragiten duen egoeraren baitan egongo dira, beraz, aldaketak egon daitezke programazioan.**

ABENDUAK 23, OSTEGUNA

-17:00. **Gabonetako musika jaialdia**, Musika Eskolaren eskutik, elizan.

ABENDUAK 24, OSTIRALA

-11:00. **Olentzero eta Mari Domingiren bisita** Aldats pilotalekuan.*

ABENDUAK 27, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, Foruen Plazan.

-11:00-13:00/17:00-20:00. **Gabonetako haur parkea**, Aldats frontoian (abendua 28an ere bai).*

ABENDUAK 28, ASTEARTEA

-20:00. **Antzerkia: "Good sex, Maritxu"** (gaztelaniaz), Kultur Elkartean.

ABENDUAK 31, OSTIRALA

-12:00. **San Silbestre lasterketa**, Foruen Plazan.*

-13:30. **Musika Bandaren gabon zahar eguneko kontzertua**, Plaza Zaharrean.

-19:30. **Preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea** (kantuan) eta **argazkia**, plazan.

URTARRILAK 5, ASTEAZKENA

-19:00. **Errege kabalgata**.*

URTARRILAK 8, LARUNBATA

-12:00. **Zuhatza eta DGaren postua** plazan.

-22:00. **Musika kontzertuak** Gaztetxean: Estutu, No Limits eta Libertad Condicional.

URTARRILAK 9, IGANDEA

-19:00. **Zinema: "Falling"**, Kultur Elkartean.

URTARRILAK 10, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, plazan.

URTARRILAK 15, LARUNBATA

-19:30. **Musika kontzertuak** Gaztetxean: Oldarkor, Kaleko Urdangak eta Orreaga 778.

URTARRILAK 16, IGANDEA

-19:00. **Zinema: "Noticias del gran mundo"**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

URTARRILAK 23, IGANDEA

-19:00. **Zinema: "Una joven prometedora"**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

URTARRILAK 24, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, plazan.

Gabonetako ordutegia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du Gabonetan, abenduaren 27tik urtarrilaren 7ra bitartean (abendua 27, 28, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 3, 4, 5 eta 7an). Liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara egongo da zabalik; haur/gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00etara.

Ekintza bereziak Gaztelekuan

-Neguko oporraldian (abendua 23tik urtarrilaren 9ra) ekintza bereziak egingo dituzte Gaztelekuan. Oraindik zein ekintza egingo dituzten zehazteke daukate, azken unean, COVID-19aren inguruko egoera aztertu eta horren arabera hartuko dituzte eta erabakiak.

"Deba 100 hitzetan" lehiaketa

-Cardenas fundazioak eta Debako Udalak antolatutako "Deba 100 hitzetan" literatur lehiaketaren VII. edizioa egingo da. Deba gai hartuta 100 hitz baino gutxiagoko eta argitaratu gabeko lanak dira aurkez daitezkeenak. Turismo bulegoan entregatu behar ko dira, otsailaren 25a baino lehen (14:00).

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

ABENDUAK 27, ASTELEHENA

Ermua

-17:00. **Antzerkia: "Botadun katua"**(Glu Glu produkzioak), Ermua Antzokian. Sarrerak Lobiano Kuturgunean lau euroan.

ABENDUAK 28, ASTEARTEA

Elgoibar

-22:30. **Gabonetako bertso jaialdia**: Aner Peritz "Euzkitze", Oihana Arana, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Nerea Ibartzabal.

URTARRILAK 4, ASTEARTEA

Eibar

-17:00. **Magia ikuskizuna (Hodei Magoa): "Ezinezkoen logika"**, Coliseoan. Sarrerak bost euroan.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abendua 31. urtarrilak 1, 2, 10, 11, 12, 13.**

Burgoa Zuazo: **abendua 27, 28, 29, 30. urtarrilak 14, 15, 16.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)


DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urtarrilak 1 eta 8

BURGOA ZUAZO: abenduak 25 / urtarrilak 15 eta 22

9:30 - 13:00



PILARIK GABEKO AUDIFONOAK
PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS:183/12


GABONETAN ERE, HONDAKINAK BIRZIKLATU ETA IZAN GARBI!

*Denona da,
izan garbi*

B DebaBarrena



CONSERVAS
YURRITA
1867
GASTRONOMIKA



Gabonetan **OPARITU** edo **DASTATU** **BERTAKO** ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALAK

Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea,
eta bestelako gourmet produktuak.

Opari kaxak eta eskaintza bereziak gabonetarako!



Gabonetarako ordutegi berezia:

Astelehenetik-larunbatera: 10:00etatik
14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
Larunbatak, abenduak 24 eta 31 ean
goizez soilik.

Zuzeneko salmenta ohiko ordutegia:

Astelehenetik-larunbatera: 10:00etatik
14:00etara.



Sarean erosi:

www.yurritagastronomika.com

Debatik nola iritsi: Ondarroaranzko errepidea z/g (GI-638, 58. km).
Yurrita Group enpresaren aurrean, errepidearen beste aldean.



Google Mapsen Casa Mauleon Etxea edo Yurrita Group jarri.